

MiAxiria



aranoko aldizkaria

2024ko
abendua

Erraldoien dema

Heria eta
Lamixan
kuttuna

VS

Hiru-
besokoen
ejerzito iluna



Sagarra jo dela - **Aranoko argazki panoramikoa**
Korrika Aranon - Herrigintzaz eta Aranoz gogoeta
Zentral eolikorik ez - **Hilarririk gabeko hilobia**
Bertsoak - Eta gehiago...

**zenbaki
honetan**

Gurekin harremanetan jartzeko:
laga@iparmank.eus

Diseinu eta maketazioa:
astidiseinua.com

Testuak: **Ainhoa Ansa, Markel Oartzabal, Arantxa Ansa, Ohiana Calparsoro, Xabier Cueto, Erramun Galparsoro, Xabier Legarreta, Oskar Gascon.**

Argazkiak: **Ainhoa Ansa, Korrika, Juan Mari Beltran, Arantxa Ansa, Andoni Zugarramurdi, Arritxu Zugarramurdi, Jon Mari Beasain, Erramun Galparsoro, Jubilotekako erabiltzaileak, Oskar Gaskon, Adei Cueto eta Naia Larrea.**



L.G.: NA 2378-2016



Aurkezpena	3	
Istorioko polit bateko elkartuak	4-7	
Eskuz-esku, estu-estu, etorkizunera!	8-9	
Aranoko sagarra jo dela!!!!	10-12	
"Egunon, alletuda ogia"	13	
Aranoko argazki panoramikoa	14-15	
Hilarririk gabeko hilobia	16-17	
Arano iruditan	18-21	
Zentral eolikorik ez	22-23	
Jubiloteka	24-25	
Oraingo haizeak	26	
OSKAR GASCON Zer da zuretzako Arano?	27	
Aranoko Sorotxo	28	



MIAXIRIA aldizkariaren zortzigarren edizioa duzu eskuetan. Aurreko guztietan bezala, nagusiki Aranorekin lotutako kontuak edo aranoarrek egindako ekarpenak ekarri nahi izan ditugu, denon gustukoak eta interesekoak izan direlakoan.

Aurtengo Santiotako protagonistetako bati egin diogu aparteko tokia aldizkariako lehenbiziko orrietan: herrian sortutako lehenbiziko erraldoiari, LAMIXAN izenekoari. Sekulako ilusioarekin sortu dute Ansatarren etxean eta Eñautentzako oparia izan bazen ere, Eñautek herriari eskaini nahi izan dio. Izan ere, “zein herrik ez du, bada, festetarako erraldoi bat?”. Uztailez geroztik, Aranok ere badu berea! Eta poliki poliki erraldoiaren aitzakian zenbait jardura sortu dira aurtan: Santiotan erraldoiarekin kalejira; ipuin

kontaketa zoragarri bat prestatu zuten hainbat gazte eta herritarrek, Zapotxin pailazoaren laguntzarekin; ondoren Lamiosingo errekarara bisita egin zuten. Gertakari horien guztien lekukotasunak jaso ditu Miaxiriak eta hemen jaso dugu horren guztiaren kontakizuna.

Aranoko argazki panoramikoa sortu dugu aurtan. Herritik begiratuta ikusten dugun mendilerroa jasotzen duen poster handi bat da, eta gailur nagusiez gain, mendi lepoak, atakak, lekuak eta errekarak ere ageri dira. Lan bikaina osatu dute Andoni eta Arritxu Zugarramurdi osaba-ilobek.

Herriaren inguruko hausnarketa pare bat ere jaso ditugu, herrigintzaz eta herriminez. Aranotik aparte bizi arren, Aranok beti gogoan dutela adierazten digute, eta duten loturari nola eutsi nahi dioten.

Eolikoaren kezka ere iritsi da Aranora azkenaldian, eta haren inguruko gogoeta egin du “Urumeako Mendiak Bizirik” taldeak, eta gisa honetako proiektu batek herriaren nola eraginera lukeen planteatu du.

Bestalde, jubilotekako lagunek egindako lanak ditugu, esate baterako. Sortu dituzten eskulanak erakutsi dizkigute, baita gorpuzta arin izateko noizbehinka egiten dituzten ariketak ere. Eta azaldu digute herriko tokiren baterako goiz pasa ere egin izan dutela.

Ez genuke aldizkari hau bukatu nahi azkeneko urte parean joandako herritar bat gogoan hartu gabe: Txurdaingiko **Pello Huizi frailea**. Pellok hainbatetan parte hartu izandu zuen Miaxiria aldizkaria osatzen, zenbait artikulu eta erreportaje idatzi baitzituen. Oso eskertuta gaude haren kolaborazio ederrak eta ekarpenak jaso izanaz. Eskerrik asko, Pello!


Istorio polit batek elkartuak



Lamixan herritarrekin Suron.

Hauxe da istorio polit baten istorioa... "Bazen behin" formularik gabe hasi zena, baina hari-muturrak josiz herria lotzen joan dena.

Norbaitek esan zidan, ipuina entzun zuenean, beste edozein herritako kontakizuna zela, ez zela batere berezia. Guk berezi egin dugu, ordea! Liburuetan jasota dagoena ongi jasoa baitago, baina ahoz ahokoak, mimo handiz kontatuak, bai baitu beste balio bat! Eta guk, istorio hau, ez-ahazteko istorioa egin dugu! Ezagutu, ikasi, antzetzu, kantatu, ikusi, ukitu, sentitu,... eta, gainera, gozatu egin baitugu.



Ibilbidearen mapa.



Lamixan erraldoia eta Eñaut.



Ibilbidean parte hartutako kuadrila.



Zapotxin eta lagunak aurretik.

Lamiosingo istorioa aurreneko MIAIXIRIA hartan kontatu genuen eta Markelek, hura irakurri zuenean, bere lehen idatzizko lanean aipatu zuen. Markeli, niri besteko zirrara egin zion kontakizunak agian. Eta baten zirrarak eta bestearen zirrarak topo egin dute aurten Santio festetan prestatu dugun ipuin kontaketan!

Aitzakia borobila LAMIXAN erraldoia izan da! Nola ez! Eñautek halako ilusioa zuen harekin... Etxekoen artean ederki kostata egindako erraldoia festetan egunero dantzatzea zen bere nahia! Eta ilusioa duenak hegalak baditu... geldiezina bihurtzen da!

Batetik erraldoiarena. Eta bestetik, Zapotxinek herriko festen hasiera berak emango zuela... Berriz ere baten ilusioa eta bestearena borborka bihotz barrenetan...

Herri ttiketako festetako egitarauak ez dira diruz bakarrik osatzen! Gauzak asko



Beheko errotako zubitik pasatzen.

kostatzen dira eta ekintza herrikoiak egi-tea ezinbestekoa izaten da urtero. Horretaz asko dakigu Aranon! Eta horra hor, Lamixan erraldoia, Zapotxin gure laguna, herri-ipuinak, herriko umeak eta zirrarra eta ilusio hauek denak lapikoan sartu eta exarian-exarian egositako ipuin-kontakteta prestatu eta probatzera eskaini genion herriari.

Prestaketa lana ez zen oso luzea izan denboran, baina izan zen sakona! Ipuina ezagutzen ote zuten aurrena, gero kontaktetarako idatzitako ipuina erakutsi haien iritziak jasoz. Ipuina nola adornatuko zuten adostu, eskulanak egiteari ekin, en-saioak festa bezperan eta egunetan ere... Maisuenea prestatu, kontalariak aurkitu,

soinu eta argi teknikariak lagun artean be-reizi, Lourdes Iriondoren "Laminak" kanta ikasi, ensaiatu... Denetarako borondatea zuten haur eta gaztetxoak bildu genituen eta emaitzak merezi izan du! Ederra izan zen saioa, ederra parte hartzea eta ederra herritarren erantzuna!

Ipuin kontaketa eta festak bukatu eta aste gutxi batzuetara, momentu eta leku desberdinetan, herriko umeak galdezka ari ziren Lamiosin non ote zegoen. Nabari zen gozatu zutela, kontakizuna bere egin zutela eta gehiago nahi zutela! Ez zegoen huts egiterik. Hitzordua jarri eta umeak eta gurasoak eta beste herritarren batek edo bestek Lamiosinera joateko "espedizioa" antolatu genuen urriko goiz batean.

Zapotxin gurekin etorri zen! Ezin bestela izan! Aboñotik abiatu, bi lekutan erreka pasa eta Lamiosinera ailegatu ginenean, putzuaren magia sentitu egin behar zen! Bere kolorea ikusi, uraren marmarra entzun, erreka horretatik sentitu... Hamaiketako eder bat elkarrekin egin eta buelta-koan, ados ginen, egun hura eta egindako paseo ederra ez genituela berehalakoan ahaztuko! Ezta Lamiosingo lamietaz herriari kontatzen direnak ere...

Bai... "Edozein herritako edozein lamiren kontakizuna" izan daiteke hau... Baina guk eskuekin ukitu dugu Lamiosinen istorioa. Han izan gara eta Lamixan han sentitu dugu! Hori ezin du edozein herritako edozein lamik esan, ezta?

Lagun arteko ipuin kontaketa "LAMIXAN"

ARANO, 2024ko SANTIOAK

Testua: **Ainhoa Ansa** • Parte hartzaileak: **herriko umeak eta gaztetxoak** • Kontaketa eta girotea: **Zapotxin**

Sarrerakoa

Hotza sentitzen dut nire masailetan. Ur korrontetik beherantz noala sentitzen dut. Ur korrontetik beherago. Putzu sakonaren hondora, zulo beltz horretara. Ez dut urrerik ikusten... Nire ile kizkur luzea bai, aurpegia estaltzen. Besoak eta hankak nekatu zaizkit; eskuak eta oinak gelditu.

Gora begiratu nahi dut, baina ezin naiz gora atera. Putzuak irentsiko nau.

Betileen arteko zirrikitutik gure baso ederra, eguzkia niretzat estaltzen sumatu dezaket. Behera noa, hondora... Ez hontzak, ez pago adarrak... ezta izarrak ere ez dira ohartu, ordea...

Izenik izan artean, ni ere izan naiz. Baina nire izena ahaztu bada...

Lamiak...

Badira, kontatuko dudan honetaz urte batzuk! Egun batean, herriko ume batzuk, egiteko berezi bat ekarri zuten eskolatik: herriko istorioen bat edo beste jasotzea bertako aiton-amonen ahotik.

Nonbaitetik inguratuko zuten grabagailu bat, eta huraxe hartuta joan ziren Beheko Herriko Mairitzeneara, aitona Joxe Mariren kontakizunen "zorroa" irekitzera eta arakatzerara.

Arratsalde hartan, Lamiosingo putzuaren barren-barrenean, sakon sakonean, inguruko pago ostoa eta adarren artean, argi izpi bat sartu zen nire betazaletaraino. Argi izpi bat, eta gero beste bat... pagoen argi-itxalak joan-etorrian sumatu nituen azalean, eta uraren xurrunmurruta belarrietara sartu zitzaidan leun-leun...

Baso ederrean, Latzeko gure errekaen joanak sortzen duen lo-kanta ezaguna egin zitzaidan bat-batean...

Nire oinek, nire antzara oinek, ur azalera bultzatu ninduten oharkabean!

Banekien zer gertatu zen, momentuan, zehazki, non eta zergatik jakiteko gai ez banintzen ere.

Inondik ere, norbaitek gure berri kontatu zion herriko umeren bati! Eta ume horrengan, behar besteko zirrarra sortu izan behar zuen gainera istorioak!

Honek bakarrik itzul zezakeen nire gorputza putzu sakonetik arnas- gunera... ahazturatik akordura...

Gutaz kontatu izan dira hainbat istorio herriari! Bai... Errotarako bidean, guretzat esnea ekarri gerturatzen ziren emakumeena esaterako! Joxe Mariren amak egiten omen zuen hori, gu umore txarreko baino, tenple oneko mantentzea hobea omen zen eta... Ez da hau gezurra, ez! Erraz haserratu gintezkeen eta orduan... kontuz gurekin!



Ipuin kontaktako taldea.

Bide batez, kontuz ibili behar zutenak, gure putzura urreak liluratuta etortzen zirenak ziren! Igerilari trebe askoak larri ibili izan ziren gure putzuko zurrunbiloekein borrokatuz! Han igeri egitea ez zen edozeinentzat... Zer uste zenuten ba?

Karraxika sumatzen gintuzten ur-putzuen inguruetan, baita Larriturriko arropa-garbitokitik pasaerakoan ere! Beste batzuetan, ilunabarrean, iratze-zoztorrak zentzurik gabe mugitzen ikustean, gure bihurrikeriak ote ziren pentsatzen egoten ziren! Gauzez beharko ez luketen aizkora- kolpeak ere gure lana izaten ziren nonbait... Baina ez ginen beti gu izaten soinu eta mugimendu arraro guzti horien eragileak!

Beldurra ziguten, entzuna dugunez, batez ere herriko mutil gazteek,

artzai lanetatik ilunbixtan etxera heldu zirenean!
Gu ginen haien belarriak eta begiak zabal-zabal izatera behartzen zituzten izaki misterioitsuak!

Hala bazen edo ez bazen, gustoko genuen herrian gutaz kontaktzen

ziren istorioak, ahoz ahoz, belarriz belarri, bizi-bizi kontaktzen zirela jakitea!

Mesederen bat edo beste eskatu beharrean ere aurkitzen ginen... Nola bestela? Olio eske baserriren batera agian... Haserreren bat edo beste irabazten genuen, olio ez baitzen nahi beste izaten orduan! Eta gu ez ginen ongi- etorriak, ezezaguna beti baita beldurgarria...

Hala ere, gogoan dut herriko emakumeek laguntzen zigutela gutakoren bat haurra izateko gertu zenean... Behin edo beste, Estartako etxeko andrearengana jo izan genuen eta hark lagundu! Baita guk hari Lamiosinen genuen urrearekin ordaindu ere!
Nahiz eta haren eskuetan, berehala baliorik gabeko pieza beltz bihurtu...

Lamiosingo putzua, orain, bide berria eginda doa.

Denboraren joanak aldaketak eragin dizkio. Ez da herriko ia inor gerturatzen orain, putzuak duen koloreaz liluratuta, haren arriskua probatzera.

Gure Lamiosin, gurea zen... eta baita Beheko bi errotetara irin eske guk gauzez eraikitako zubi zaharra pasatuz bertaratzen ziren herritar eta bisitariena ere.

Denek errespetatua, denek maitatua, mirestua,... eta guk harkaitz gainean ilea orraztuz gure izanarekin gordea.

Orain, gure berri aho gehiagotatik belarri gehiagotara iristen ari denez, gure izena oroitu denez, zinez eskertu nahi diet herriko istorio zaharren gordailu diren guztiei eta ume istorio zaleei, eguzkiaren epeletara aterarazi nauzuelako.

LAMIXAN naiz, eta Lamiosingo putzuaren ertz batean jarraituko dut, ez urrezko orraziaz ilea orrazten bakarrik, ez... Haize bihurrietan Aranoko eta inguru honetako lagunei, banaizela eta izango naizela kantatzen jarraituko dut! Ea entzuteko erne zaudeten!



Eskuz-esku, estu-estu, etorkizunera!

‘Mintzairaren seta guk dugu, erromantiko porrokatuok, pikuan bizi gare-nok, zozook’

Gure herrian –Aranon zein Euskal Herrian- hizkuntza txikien aldeko apustua barneratua dugu. Kontzientzia buruan burubelarri gabiltza hain geurea den hizkuntzaren alde. Sentimendutik aritzen gara-dira batzuk, sinismenetik edota arduratik; beste batzuk pentsamendutik aritzen gara-dira, estadistikatik edota estrategiatik; eta azken batzuk ekintzale gara-dira, herrigintzatik edota militantziazatik. Dena den, ez dira aritzeko modu iso-



latuak, hirurek iturri beretik edaten baitute eta aldi beren auren artean ere iturri baitira. Ez dira bakanak, progresiboak dira, kokatzen dituzun ordenean kokatuta. Izan ere, pailazo hirukotea ez zebilen oso galduta hiru hitz hauek sudurgorri –eta ez sudur gorri- askoren lelo bihurtu zituztenean: *Sentitu, pentsatu, ekin!*

Lagun batek esan zidan *txikiak garela-ko dakigula begietara begiratzen, dakigula muxuen hizkuntzan hitz egiten, dakigula gu bezala txikiak direnak ulertzen*. Eta ez zen hizkuntza 'minoritarioez' bakarrik ari, Euskal Herritarron filosofiatik ari zen, jazarpenak jazarpen menderatu dugun empatiatik, ahizpatasunagatik, tolerantziagatik eta ondokoa ulertzeagatik bota zidan leloa lagunak. Izan ere, militantziatik haratago doa euskaldunok euskararekiko duguna, izan ere, nor ez da urduritu hizkiz-hizki aldarrikatzerakoan: *K-O-R-R-I-K-A!*

Tipi-tapa, tipi-tapa, Korrika! garrasiak dagoeneko entzuten ditut Goizueta alde-tik. Inguruan herria, gaur inoiz baina herrikide gehiagorekin, Korrikak mugitzen du zerbait beraien barrenetan. Aurten Aranotik igaroko dela jakin genuenean irribarre batez hartu genuen berria, *Aranon ere euskararen alde* gaudelako eta oinetakoak hartu eta tipi-tapa kilometroak eta kilometroak egiteko prest gaudelako. Urduritasunetan murgilduta ez gara izan gai lekukoa nork eramango duen erabakitzeke, hatz erakusle altxatu gehiegi eta lasterketaren burrunba geroz eta gertuago. Azkenerako hartu dugu erabaki zentzudunena, denok eramango dugula lekukoa, alegia. Nola? Hori ikusiko dugu lasterketaren martxan.

Hurbildu da zarata, musika, burrunba eta furgoneta. Arpegia argitu zaigu denoi eta ez da furgonetako argi laburren eta bonbilen meritua bakarrik izan. Hartu dugu lekukoa, herriz herri Euskal Herria zeharkatuko duena, euskara eta koloreak banatuko dituena errepidez errepide. Kolore gorria, berdea eta zuria airean, mezu barruan. Gure eskuetan dago eta *gure esku dago!* Leloak entzuten ditugu non-nahi, inoiz entzun ditugun lelo errealistenak, benetazkoak. Sentitu, pentsatu eta ekiten diren leloak. *Eskuz-esku, estu estu, daramat euskera! Eskuz-esku, estu-estu, etorkizunera!*

● Markel Oiarzabal Ansa



Aranon sagarra jo dela!!!!

Jakina da Aranon aspaldidanik sagardoa egin izan dela. Gaur egun, baserri gutxi geratzen dira tolarearekin eta gutxiago oraindik sagardoa egiten dutenak, baina sagarra-jotzea, "pixoiarekin" edo "mazua-rekin" egiten zuten bezala, gutzit galdua dagoela esan genezake hanka sartzeko beldur handiegirik gabe. Sagarra jotzeko, baserri askotan urri aldera sagarrak bildu, sagarra jo eta barririk betetzen ziren.

Herri musikaren hariari jarraitu izan dio urtetan Juan Mari Beltran musikari, irakasle eta musikologoak. Oiartzungo "Soinueña" bere museoan, herri-musikari lotutako instrumentu, fonoteka eta bideoteka izugarri interesgarria dauka. Bertan, bere bizitzan erosi, grabatu eta egin dituen ikerketen emaitzak aurki ditzakegu eta bertara jo nuen Aranon elkarrekin egindako grabazio baten eske, hain zuzen ere, Ezkerren Bordan, 2001eko urriaren 31n egindako sagar-jotzea grabatu baitzuen.

Egun hartan, Ezkerren bordako Pello eta Ana Mari Ansaz gain, Beltsoko bordako Joxe Antonio Ansa ere grabatu genuen sagarra jotzen bertako tolarean. Urte hartako azkeneko sagarrak omen ziren han jo zituztenak. Sagardoa bi urtez behin egiten dute oraindik ere. Urte batean sagarra izaten bada, hurrengo urtean ez omen da kasik izaten. Bideo horretan ikusitakoarekin eta Ezkerren bordako Pello eta Ana Mariri duela gutxi egindako elkarrizketa goxotik atera dugu honako artikulua osatzeko informazioa.

Egurrezko tolareak ezagutu dituzte gure solaskideek baina, hauek Suron bakarrik zeudela esaten zuten. Pellok: *"urakin haunditu eziñik ibiltzen tzian tartiak ixteko, bestela hortik atetzen zen muztiyua..."*. Ardatzak burnizkoak izaten ziren eta ardatza mugitzeko bi modu deskribatzen dituzte. Ezkerren bordan bueltak emateko egur luze bat izaten zuten eta lau edo bost laguneren artean bueltak eman behar zitzaizkion ardatza estutzeko. Aldiz, Beltsoko bordako Joxe Antoniok: *"Gue itxian txirrika bat izaten tzen, atze ta aurre iñez, erraxago estutzen tzen"*.

Sagarra jotzeko erabiltzen zuten tres-

Argazki honetan Ana Mariren ondoan ditugu pisoia eta egurrezko mazeta txikiagoa.



nari "pixoia" edo "mazua" deitzen zioten. Kider luzea zeukan gerrieran lan egiteko eta Aranon aurkitu diren pixoiek behintzat, pisu handia zuten, gutxi gora behera 6 kg. Oinarrian zabalago eta goian estuago forma konikoa zuen azpiko egurrak.

Egurrezko mazetari buruz, berriz, Ana Mari zera dio: *"ordun itten zuen kartzen zuen sar pixarrak honekin jo ta haikin barrika bete"*. Sagar gutxi zeukatenean erabiltzen omen zuten bere aitak edo tolare-

rik ez bazuten ere bai. Pellok esaten du: *"miño maza hoi ibiltzen zen karpintean, trentxak eurrezko kierra izaten zuen ta burniyakin jo ta itten zian lehertu ta hartako zen hoi"*.

Sagarra jo baino lehen, noski, hankutsik jarri behar zuten. Tolarearen barrura bota sagarra, hankarekin zabaldu banaka utzi arte, gutxi gora-behera, eta bi edo hiru lagun sartzen ziren tolarearen barrura. Kanpotik aritu zen Ana Mari ere.



Ondoko argazkian Joxe Antonio Ansa abarkak eranzen.



Ondoko argazkian Pello, Joxe Antonio eta Ana Mari sagarra jotzen.

Sagarra jotzerakoan, bi pertsona bazi-
ren, bata bestearen gainean jotzen hasten
ziren tarteka, baina batzuetan bat bestea-
ren atzetik hasten ziren txalaparta joko
balute bezala. Horrela irudikatuko genu-
ke txalaparta joko bagenu:



Hiru sartzerakoan berriz, tarteka bi ba-
tera eta bestea atzetik edo baita hiruak
bere espazioarekin. Kirikoketaren antzera.
Juan Marik galdetzerakoan ea jolas hori
egiten zuten, ez dira ados jartzen. Batzuk
diote elkarrekin jo beharko litzakeela, bai-
na batzuk besteak baino "liztogo" jotzen
zutela. Joxe Antonio, ordea, gogoratzen
da anaiarekin jolasean aritzen zirenekoa,
bata bestearen atzetik jotzen.



Sagarra jo ondoren, tolaletik atera au-
rretetik sagarra ardatzaren inguruan pilatzen
zuten mendi gisako m bat eginez.

Gainean "kotrak" jarri, ardatzaren bi
bazterretan bina. Kotrak egur bereziak zi-
ren. Barnealdean kanal txiki bat zuten eta



Ondoko argazkian, Joxe Antonio eta Pello.



Gaztarazko-Bordako egurrezko tolarea.

kanaltxo horretatik sagarra estutzerakoan ateratzen zen muztioa bideratzen zen. Iskinetatik ere erortzen zela diote anai arrebeak.

Kotraren gainean, oholak jartzen ziren eta, haiek zapaltzen, egur handixeagoak gainean eta txikixeagoak gorago. Bi aldeetara jarriak gainean, ardatza estutuaz, sagarra zapaltzen zuten "muztiyua" atereaz. Muztio hori barriketan sartuko zuten eta fermentazio denbora pasa ondoren, sagardoa edateko moduan egongo litzake.

Errotan eta Ezkerren bordan modu berezian egiten omen zuten pitarra. Beste leku batzuetan ere egiten izango zuten tolarerik ez edo sagardoa egiteko sagar gutxiegi zegoenean.

Pellok: Tolareik gabe're itten zun erro-tayak (Joxe Claver Makazaga), saarra bildu ta xerratu. Xerra mehe-mehe-mehe-mehiak denak, ta geo sekatu. Sekatu ta euki pixka batian ta geo gañian zulo haundi xamarra bihar zun barrikak. Gañetikan bota xerra haik sekatuta ta urez beteta han euki. Ikiaragari pitar goxua itten tzen". Hamabost-hogei eun euki bihar zian sekaten saar xerrak. Ezkerren bordan'e itten giñun baita re, saarra gutxiu zenian.

Ezkerren bordakoek bertan ezagutu zuten tolarea jaio zirenean. Pellok: " *Hoi attona zenak iña dela saten zuen, gue osabak ta atta zena akortzen zian hoi nola in tzuen. Bin bittartian Martikalenen itten omen zuen saardua. Han jo ta geo gurdin karri barrika, saten tzuen, hemen itxian in arte. Martikalene baserria, orain eroria do, Antsenen azpikaldian eta Ezkerren bordan parian tzon".*

Ana Marik: *Felix Ansa, hemengo (Ezkerren bordako) attona, hargina ta karpin-*

terua ta dena men tzen ba! Gue atta ta senide gehio re bazian... hormigoizkua in zuen". Pellok: "Urmenditik eo nondik ekarri zuen Ardatz hoi. Bian zenbat burni sartu ziharka ta nola seutu zuen..."

Ez zekiten ziur esaten zein urtetan egingo zuten hormigoizko tolarea baina, Martin Ansa 1908an jaio baldin bazen, mendearren lehenengo zatian egina dela uste dute, mutil kozkorretan egin zutela esaten zuelako. Ehun bat urtetik gora izango ditu beraz, argazkietan ikusten dugun tolaareak.

Tolareak non zeuden gogoratzen hasi gara orain, beraien garaian noski. Pellok: " *Hamazazpi bat baserritan eongo zen tolarria... Hormigoizkuak Larraxuñ ta Leon-txon bordan ta Mairtzenen e bai, dotoria zuen! Bekerrikuk han itten tzuen denak, nahiz Estarta, Mitxelene, Goozkene...denatan hor (Mairtzenen) jota eamaten tzuen. Aolan e bazen, Enaztin ta Sargazten e bai dotoria. Askatsun ta Bentaberrin e bai. Aboñon e bai. Arranbiden e bai. Herrin, Olason bakarrikan izaten tzen. Han itten tzuen herriko jende gehienak. Ordun estimaziyo haundigua zun pitarrak ta sarduak. Udan beroik haundinian jua da karri ta... epel-epela Jesus...uan berriz prexkatuta ez bada ez yue gustuik hartzen!*

Ana Marik: " *Gue attak ta re ttiki-ttikitan... Jesus pitarra, ura miño hobia izango zuen..."*

Jarraitzen dugu kontaketa-rekin. Pellok: " *Xauxarren e tolarriak beandu in tzian, ni akortzen nazela. Suron Gaztazko bordan ta Martzeneko bordan eurrezkuak tzian; zuen itxian (Beltsoko bordan) hormigoizkua; Maisuneko bordan'e bazen ta Larren bordan'e in te zuen..."*

Larrean bordako Ixiarri galdetu genion

bai ote zuten tolarerik eta baietz esan zingun. Bere osabarekin, Agustin Loyarterekin hitz egiten aritu omen zen gaiaren inguruan eta informazio zoragarria eman zigun gainera. Esan zigun tolarea izan aurretik baserrian, Plazako bordakoek eta Larrean bordakoek Maisuneko bordan jotzen zutela sagarra. Barrikak betetzeko ura beheko errekatik ekarri behar izaten zutela ere Maisuneko bordara eta gero kupelak etxera eraman karroan. Txanda hartu behar zutela gogoratzen du sagarra jotzeko eta Maisuneko bordakoak trukean edo, ez zekiela zergatik, patsarekin (txikitutako sagarrarekin) geratzen zirela haien behiei emateko.

Hemen jarraian, Kontxi Bordaxarkoak, In aki Gaztazko bordakoaren baimenarekin ateratako argazkia: Esan beharrik ez dago, egurrezko tolare hau, guk dakigula, Aranoko bakarria dela, eta mirari txiki bat da oraindik kontserbatzea. Gaztazko bordak ondoan duen bordan dago. Hainbat etxetan, sotoak egokitzerakoan, tola-reak bota egin ziren pena handiz ziurrenik. Hau ordea, Aranoko altxorretako bat da zalantzarik gabe.

1954an Itxautxikiko Feliziano aritu omen zen Larrean-Bordako tolarea egiten. Agustinek 13 bat urte zituela izan zen hori. Ardatz on bat ba omen zuten gordeta eta hura erabiliz egin omen zen hormigoizko tolarea. Masa egiteko berriz, astoan ekartzen omen zuten behar zuten hondarra. Haiek garaiak!

Gaur egun, sagardoa egiten duzuenoi eskerrak ematea besterik ez zaigu falta. Ezkerren bordakoei, Jose Inaxio Martzenekoari, Jabier Plazakoari, Lazaro Haizegaingoari eta Mikel Bordaxarkoari...mila esker, nahiz eta modu tradizionaletik makinaria erabiltzera pasa izan, garai hartako esentzia gordetzen duen sagardoa egiten jarraitzeagatik, eta Aranoko feria egunean, herritarroi, aspaldiko zaporea duen sagardo goxo hori eskaintzeagatik. Eta nola ez, eskerrak baita ere Juan Mari Beltrani, bere garaian bideoa grabatzeagatik, eta orain, aurkitzeko denbora hartzeagatik, baina batez ere, Ezkerren Bordako Ana Mari eta Pellori beti bezala, kontu zoragarriak kontatzeko duzuen pazientziagatik eta zuen etxean hain goxo hartzeagatik beti.

Bejondeizuela eta urte askoan horrelaxe segi dezazuela!

● **Aranxa Ansa Zugarramurdi**

"Egunon, alletuda ogia"



Gaur egun, teknologia berriei buruz ikuspegi kritiko batetik hitz egiten dugu. Etengabe aipatzen da sare sozialek, mezularitzako aplikazioek eta plataforma digitalek elkarreragin benetakoetatik, giza kontaktuetatik eta komunitate zentzutik urruntzen gaituztela. Hala ere, Aranon izan dudana esperientzia pertsonalari esker, tresna horiek gure bizitzan eta komunitatean duten benetako eraginari buruz hausnartu dut.

120 biztanle inguru dituen herri honetan 85 lagunek parte hartzen dugu "Aranon zer berri" WhatsApp taldean. Pertsona horiek nolabaiteko harremana dugu herriarekin, bertan bizi direlako, senideak dituztelako edo, besterik gabe, maiz bisitatzen dugulako. Bitxiena da, sarritan, ia salbuespenik gabe, Aurorak mezu bera idazten duela taldean: *"Egunon, alletuda ogia"*. Hasieran, aitortu behar dut mezu hori astuna eta errepikakorra zela niretzat, nire errutina eteten zuen oroigarri alferrikakoa bailitzan. Nire buruari galdeztzen nion ea zergatik jakin behar genuen ogiaren berri, egunez egun.

Denborarekin, ordea, beste modu batera ikusten hasi nintzen. Eguneroko me-

zu hori, ogiari buruzko jakinarazpen hutsa izan beharrean, bizi-seinale bihurtu zitzaidan, herria bizirik zegoela gogorazten zidan taupada moduko bat. Ogia iritsi zela jakiteak esan nahi zuen Ezkerran bordako Ana Mari herrira etorri zela, eta Legarreta Beko Herritik igotzen ariko zela. Eguneroko ekintza horri esker, hainbat pertsona ogiaren inguruan biltzen ziren, agurrak partekatzen zituzten eta tokiko nobedadeen berri ematen zuten. Nire buruan, giza interakzio sare ikusezin bat iragarki soil horren inguruan nola ehuntzen zen ikus nezakeen.

Handik aurrera, mezu horrek irri bat marrazten dit aurpegian irakurtzen dudana bakoitzean. Iruditzen zait, batzuetan herri aldantzen nauen distantzia fisikoa handia bada ere, bere eguneroko bizitzarekin konektatzen nauela. Eta ez hori bakarrik: mezuak gogorazten dit Arano bizirik eta aktibo dagoela, pertsonen arteko hartu-emanak jarraitzen duela, teknologia berrien bidez bada ere.

Gaur egun, asko hitz egiten da teknologia berrien ondorio negatiboek: harreman zuzenik eza, harremanen despersonalizazioa eta komunitate zentzuaren galera.

Baina uste dut beti ez dela bidezkoa alderdi negatiboetara bakarrik begiratzea. Teknologiek, beste edozein tresnek bezala, modu eraikitzailean erabiltzeko ahalmena dute. Kasu honetan, ikusten dudanez, praktika komunitario batek, ogia erosteak edo eguneroko agurrak, WhatsApp talde baten bidez agertzeko modu berri bat aurkitu du. Giza interakzioa ordezkatu beharrean, teknologia hori bizirik mantentzen eta komunikazio modu berrietara egokitzten laguntzen ari da.

Herri txiki honek erakutsi dit teknologiek ez dutela zertan oztopo izan zentzu komunitarioarentzat. Aitzitik, pertsonak elkartzen dituen zubi bihur daitezke, fisikoki bertan ez daudenean ere. Eguneroko mezu hori, *"Egunon, alletuda ogia"*, ez da jakinarazpen hutsa. Aranon elkar bizitzak zutik dirauela gogorazten digu, herriko bizitzak bere bideari jarraitzen diola, eta, komunikatzeko moduan aldaketak egon arren, kide izatearen zentzuak bere horretan jarraitzen duela. Teknologia berriak, ondo erabiliak, hainbeste maitate dugun auzo-lan horren hedapen bat izan daitezke.

Aranoko argazki panoramikoa



I: IPARRALDEA
M: MENDEBALDEA
E: EKIALDEA
H: HEGOALDEA

∩ MENDI LEPOA
▲ GAILURRAK
ATAKAK

△ BIZKARRA
■ LEKUA
~ ERREKAK

Aranoko argazki panoramikoa duzue begi aurrean. Herritik begirata ikusten den mendilerroa ageri da. Gailur nagusiez gain, mendi lepoak, atakak, lekuak eta errekek ere bildu dituzte mapak.

Herrian, *Haizegain* etxean, bizi den Andoni Zugarramurdik eta haren iloba


Arrixu Zugarramurdik sortu dute lan zozagarri hau: bat, mendiz mendi ibili da, guztiaren kokaguneak eta izenak bilduz; eta besteak, *Arristudioko* ordenagailu aurrean jarri eta mapa diseinatu du.

Elkarlanean osatutako lana da, beraz. Bi egileekin batera, gainera, laguntzaile izan dira Ainhoa Ansa herritarra, Arano-

ko Udala eta Euskara Zerbitzua. Guztien ahaleginari esker inprimatu da mapa eder hau, baita etxez etxe banatu ere, aranoar guztiak ale bana jaso dezazuen.

Euskarri praktikoa eta erabilgarria izanen da, dudarik gabe, eta norberaren inguruak hobeki ezagutzeko lagungarri izanen da. Gozatu!

ARANOKO IKUSPEGI PANORAMIKOA 2024



BABESLEAK



Hilarririk gabeko hilobia

2020ko maiatzean Aranzadi elkar-terko ikertzailea zen Amaia Velascoren mezu bat ailegatu zen Aranoko udaletxera. Asko dira hilabeteen zehar ailegatzeko direnak, baina honek gure arreta (nirea behintzat bai) bereganatu zuen berehala, izan ere, mezuaren gaiak *“posible fosa en Arano”* zekarren idatzita.

Amaiak kontatu zigun Iruñeko epaitegi batean topatutako informazioaren arabera, 1937an gizon baten gorpua topatu zutela *“kakoletako kurba”* izeneko lekuan eta Aranoko hilerrian hilobiratu zutela. Amaiaren asmoa gure hilerria bisitatzea zen bertan zegoen hilobia topatu nahian.

Amaia udaletxera etorri zen egunean berarekin hitz egiteko aukera izan genuen. Gizona tiroz hil zutela azaldu zigun, eta Aranoko hilerrian zegoela hilarririk gabeko hilobi batean. Izan ere, garai hartan ez ziren gorpua identifikatzeko gai izan. Heriotza-agiria eta hilobiaren kokapenaren inguruko informazioa ekarri zituen Amaiak Aranora.

Ez dut esan, ni historian lizentziatua naiz, eta une horretan ohartu nintzen sekulako aukera nuela nire begien aurrean eta ikerketa horretan parte hartzeko grina sentitu nuen, nire jakin-min propioa asetzeko soilik bazen ere. Heriotza-agiria eskuetan hartu nuen eta, irakurri ondoren, nire buruan datuak ordenatzen saiatu nintzen:

- 1937ko maiatzaren 4ko dokumentua zen.
- Herriko bake-epaile eta idazkari ziren Jose Mayoral Ansak eta Felipe Saragüetak sinatu zuten.
- 30 urte inguruko *“gizon ezezagun”* baten hilketa aipatzen zuen.
- ltxura fisikoa:
 - Altuera: 175 cm
 - Ile beltza.
 - Begi urdinak.
- Janzkera:
 - Jaka lila.
 - Jertse nabarra, txuria eta beltza.
 - Alkandora horia urre koloreko mahu-ka-bikiekin.
 - Larruzko gerrikoa.
 - Galtza gris ilunak.
 - Koadrodun galtzerdiak eta espartin txuriak.



- Maiatzaren 2an aurkitu zuten gorpua.
- 3 tiroz hil zuten.

Data esanguratsua iruditu zitzaidan, izan ere, 1937. urtean gerra zibila zen Espainian. Gerraren hasieran Hego Euskal Herria bitan zatituta geratu zen, Bizkaia eta Gipuzkoa errepublikaren gobernuari leial mantendu ziren. Araba eta Nafarroa, aldiz, kolpista frankisten aldean lerrotatu ziren. Gainera, gerra uztailearen 18an hasi eta irailaren bukaerarako ia Gipuzkoa osoa frankisten esku zegoen. Hau kontutan hartuta, ziurtzat jo dezakegu Arano, dokumentu hau idatzi zen unean, frankisten esku zegoela.

Janzkera ere bitxia iruditu zitzaidan. Ez zirudien baserritar baten eguneroko janzkera. Apreta (alpargata) txuriak jantzita zituela irakurri nuenean gogoratu nuen... Jende askok egunerokotasunean espartin beltzak janzten zituen, baina txuriak festa egunetarako edo mezetara joateko erabiltzen zituen. Segituan mugikorra hartu genuen eta *“google orojakitunari”* galdetu genion. Honen erantzuna berehala heldu zen: 1937ko maiatzaren 2a igandea zen eta maiatzaren batean langileen eguna ospatzen zen (Espainian 1889tik ospatzen da).

Era berean, agirian egindako deskribapenean ez da aipatzen hildakoaren objektu pertsonalik. Hori, bestelako daturik gabe, izan daiteke ez zituztelako topatu, edo

agian garai hartan ez zelako ohikoa agiri mota hauetan halakoak aipatzea.

Gehiago sakontzeko denborarik ez genuen, baina 3 datu horiekin dagoeneko nire burua hipotesietan pentsatzen hasia zen. Izan ere, askotan hau da historialariorik daukagun erronka; eskuetan daukagun datuekin hipotesi sinesgarriena zein den (edo zeintzuk diren) pentsatu behar izaten dugu. Datu fidagarriagorik ezean, ordea, hipotesiak besterik ez dira.

Datu zehatzagorik gabe, hauek dira, nire ustez, gertatu ahal izan zirenak:

- Frankista batek (edo batzuk) hil egin zuen, akaso bere ideologiagatik? eta hala balitz, benetan *“ezezaguna”* zen? ala ezezaguntzat jo zuten krimena ezkutatzeko? eta hala balitz, bertako norbaitek hil ote zuen?
- Ezezaguna zela aprobetxatuz, gainean zeramatzanak lapurtzeko hil ote zuten, besterik gabe?

Asko dira ditudan galderak. Eta oraingoz dakidan bakarra, jaka, jertse eta alkandora dotorez eta espartin zuriz jantzitako gizon *“ezezagun”* hura, nonbait familia eta lagunak haren hutsa sumatuko zutena, Aranoko hilerrian lurperatuta dagoela, izenik eta ahotsik gabe, hilarririk gabeko hilobi batean.

Folio 82

ACTA DE DEFUNCIÓN

REGISTRO CIVIL DE Arano

Número 4

DISTRITO DE

NOMBRE Y APELLIDOS

Desconocido

En Arano, provincia de Navarra, a las once y minutos del día cuatro de mayo de mil novecientos veinte ante D. José Mujica, Juez municipal, y D. Felipe Saragüeta, Secretario, se procede a inscribir la defunción de D. hombre desconocido de unos 30 años, natural de provincia de hijo de D. y de D. domiciliado en

de profesión y de estado (1) estatura 1.75 m. pelo negro, ojos azules.

Estaba vestido con chaqueta de azul lila, jersey pañoado blanco y negro y camisa blanca con puños dorados, cinturón de cuero con hebilla de acero, pantalón de azul gris oscuro, calcetines blancos, calcetines a cuadros y ligas marrón, y alfileres blancos. Su cadáver fue hallado el día 2 de mayo en el camino de Arano a Echarri de Arriba de naturaleza provincial.

falló a consecuencia de tres heridas de arma de fuego según resulta de (2) informe de auto post mortem y reconocimiento practicado, y su cadáver habrá de recibir sepultura en el cementerio de Arano.

Esta inscripción se practica en virtud de (3) expediente instruido por este Juzgado.

consignándose además (4)

habiéndola presenciado como testigos D. Práxedes Saragüeta y D. José María Arana mayores de edad y vecinos de Arano.

Leída esta acta, se sella con el del Juzgado y la firman el Sr. Juez, los testigos (5) de que certifico.



Handwritten signatures of José Miguel Arana, José María Arana, Práxedes Saragüeta, and Felipe Saragüeta.

Arano iruditan

Aurtengo aldizkarirako argazkiak Jon Mari Beasainek ateratakoak dira. Herriko ate pare bat, eta gainerakoan, batez ere, mendia eta natura, Aranoko edertasun eta aberastasunaren irudi. Momentu ederak erakusten dizkiguten argazkiak dira. Gozatu sorta honi begira!



Aranoko Sherman generala, indultatutako norteko haitza .



Armarri eta ate zaharrak.



Goitik behera begira.



Elurra ageri, 2018ko otsailaren 8a.



San Roken itzala.



Pasealdia.



Hirukotea gordeketan.



Lanbro artean ezkututzen.



Lili bat.



Bi batean.



Loreak tantaka.

Zentral eolikorik ez



Lamixan aspaldian dabil kezkatuta. Gauzak aldatzen ari dira errekan. Urak gardentasuna galdu du, animalia gutxi dabil erreka bazterrean, amorri, anfibio eta bestelako lagun urzaleei ez daki zer gertatu zaien.

Hori bakarrik ez, zarata arraro batzuk datoz azken egunetan mendien goialdetik, gau ta egun errepika amorragarrian. Ez da erreka hots goxoa edo batzuetan entzuten den txalaparta maitearena. Hauek gaiztoagoak dira, buruko mina ematen diote Lamixani, ez du atsedenk hartzen gauean, egonezin handia sentitzen du.

Urriaren 9an azaldu dira bigarrenez udaletxean enpresa tente-potenten ordezkariak. Aurreko lelo berdinarekin, aukera ederra dela herriarentzat, hainbat operari eta onura ekarriko dizkiona.

Zein preziotan, ordea? Mikel Alvarez adituaren testuari erreparatzen badiogu astakeria galanta dela esan daiteke.

Luze hitz egin daiteke proiektu hauei buruz, hainbat helduleku aipa daitezke, besteak beste: eredu ekonomikoa, sektorearen porrota hainbat instalazioetan, burujabetza energetikoarekin zerikusia ote duen, benetan berriztagarriak diren (gehienez 30 urteko iraupena dute eta ez dira birziklagarriak), faunan duten eragina... Labur eta konplikatu gabe hiru aipatuko ditugu hemen.

Egitasmoaren ezaugarri batzuk

Aurkeztu duten proiektuaren ezaugarriak ikusita, dimentsioak, instalazioaren potentzia (100MW), sarbideen zaila... gure herriak eraldaketa handi bat sufrituko duela ziur gaude.

Aerosorgailu bakoitzak (Aranoko lurretan 4 edo 5 aurreikusi dira) 200 m inguru izango ditu, hegaletako bakoitzak 80 m-tik gora. Elementu hauen garraiorako pista zabalei, dorreen muntaketarako behar diren lur azalerak gehitzen badizkiegu, paisaiak ederki jasango duela argi dago. Tamaina oso handiko makinak igo behar dira gainetara, hormigoia garraiatu dorreen oinarriarako, sakonera eta azalera handiko oinarriak, dimentsioek eskatzen duten bezala.



Antzinako monumentu megalitikoak.

Kokapena ere kezagarria da oso. Hitz hauek idazterako garairako zehatz erakutsi ez badute ere, herritik oso gertu paratzeko asmoa dutela pentsatzeko arrazoiak ditugu, haizetsuak dira gure gainak eta estimatuak izan dira lehenago ere. Badirudi oraingoan apustu serioa egiten ari direla, ez Aranon bakarrik, Euskal herria osoan.

Osasuna

Lamixanek sentitzen duen hori ederki dago dokumentatua eta jaso lehenagotik horrelako zentralen inguruan bizi izan diren pertsonen bidez. Testigantza eta datu bilketa hauek enpresa interesatuak hasieratik ukatzen dituzte. Soinu arruntak eta infrasoinuak, etengabeko pultsuan, batez ere gauetan entzuten direnak (badugu dokumentazioa gai honen inguruan).

Arbasoak

Ondo ezagunak dira inguratzen gaituzten Antzinako monumentu megalitikoak.

Burdin arokoak omen dira. Zerk bultzatzen zituen leku jakin hauetan hildakoen oroigarri hauek egitera? Pentsatu dezakegu haientzat lur sakratuak zirela, esanahi edo garrantzia berezia zutela eta orain ia 3000 urte geroago hankaz gora jarri nahi dituzte.

URUMEAKO MENDIAK BIZIRIK!

Herrian hasiak gara serio mugitzen. "Aranoko argia" wasap taldetik abiatu eta gai honi zuzenduta elkartea osatzea pentsatu dugu.

Antzeko auzietan dabilzan beste tokietako plataformekin egon gara eta gauza bera esan digute, lanean hasteko garaia dela alegia. Garrantzitsua dela mugimendua badela ikustea, ez garela herrixka maneigarri bat. Oraingo herritarrengana iristeko lanak hartu ditugu, gero etorriko da gure kezka eta proiektu "merkantilista" hauei ukoa adierazteko uena, bai publikoki hedatzeko, eta bai erakundeetan

alegazioak eta oztopo administratiboak aurkeztekoa.

Ez gaude energia berriztagarrien aurka, modua da aurka jartzen gaituena. Txikizioa egin gure parajeetan, energia poligono bat sortu gainetan, mendia industrializatu enpresa jakin batek, gure kasuan REPSOL, denbora laburrean ahal dituen etekin handienak ateratzeko.

Hori guztia deskarbonizazioaren aitzakiarekin, trantsiziotik gutxi daukan eredu bat, dena diru bihur daitekeela uste duen eredu ekonomikoa. Zein izango da hurrengo elementua? Ura, akaso?

"Aranoko argia" wasap taldean sartu nahi izanez gero eskaera egin daiteke "aranon zer berri" taldearen bitartez. Elkarretaratzek, hitzaldiak edo bestelako ekintzak antolatzen ditugunean herriko iragarkien panelean edo Kontsejuko arbelean izango da informazioa.



Ariketa egiten.



Eguberrietako apaingarriak.



Irudiak koloreztatzen.



Aranoko jubiloteka txokotik

Azken aldian zenbat lekutan entzuten ari garen elkarbizitzarako eta herriaren kohesiorako zein inportanteak diren kultura desberdinak uztartzea, belaunaldi desberdinak elkartzea, herriko bizitzan parte hartzea... Eta ni konturatzen naiz Jubilotekak, intuizioz eta naturalki, arlo horiek denak kontuan hartuz funtzionatzen duela herrian. Herri txikia da Arano, eta astez ez da erraza elkar ikustea ere... Zenbat aldiz pentsatu dugu, batera eta bestera gabiltzala, gelditu ere egin gabe? Bakoitzak bere lanak

eta errutinak hartuak dituela eta hortik ateratzea ez dela erraza izaten?

Ba Jubilotekan elkartzen dira herriko 5 emakume. Bakoitza bere bizimodu eta bere ohiturak goiz batez etxean "aparkatu" eta... hantxe, astean behin, Maisuenen dute elkar ikusteko hitzordua eta elkar "zaintzeko" konpromisoa. Hori baita egiten dutena! Eta gehiago ere bai baita herriari egiten dioten aportazioa ere!

Nahigabe egiten dute egiten duten guztia. Esan nahi dut, konturatu gabe ateratzen zaiela egiten duten eta pentsa-

tzen duten guztia. Eta han, ikusle bezala, gozatu ederra hartzen dut nik haien artean egonda!

Aportatzen dituzte ideiak, borondatea, eskulana, esperientzia... edozer gauzatarako hortxe egotea. Maisuenerari, zer esanik ez, txukundu bat ematea astean behin! Estimatuha haien laguntza!

Aportatzen dute herriko festa desberdinetan beste askok bezainbeste... antolakuntzan sartuak daude batzuk, ezinbestekoak dira besteak ere edozein jarduera aurrera eramateko! Kontu hartu, San Martinetako



Larriturriko labaderora bisita.



Orri birziklatuekin saskitxoak sortzen.



Pintatutako ontziak erakusten.

talo jatearen motorra hauek eragiten dutela, besteak beste! Festetan ere, ferian postua jartzeko eskulanak egiten aritzen gara aurreko asteetan. Edozein data gerturatzeko ari denean galdezka hasten dira, lan txiki bezain handiak beregain hartzeko ilusioz...

Aportatzen dute, herrian norbait bakarrik bizi bada edo ezindua, harenganako kezka eta harenganako ardua. Jubilotekatik egin izan diogu gaixorik aurkitzen den adineko bizilagunen bati deirik bat zer moduz dagoen galdetuz. Eta duela gutxi, gainera, hortaz hizketan ari ginela, lagun hauei bisita egiteko erabakia hartu genuen! Ez al da zoragarria, bakarrik dagoen norbaiti noizean behin goiz bat goxatzen saiatzea? "Astea moztea", haiek askotan esaten duten bezala!

Aportatzen dute gure herriko kontakizunen eta pasartearen ikuspuntu interesgarria. Beren haurtzaroko oroitzapenak, bizipenak,... kontatzen dituztenean, herria hobeto ezagutzeko "pribilegioa" eskaintzen digute.

Aportatzen dute, gainera, hizkera aldetik izugarri! Pentsa Aranon "noka" (guretzat "emakumeen hika") barren-barrenean daramatela! Beraien artean hitz egiten dute "suelto" eta guk hauengandik edan besterik ez dugu egin behar... zoragarria ematen didaten "klase partikularra" ostegunero...

Aportatzen dute komunitatea, aportatzen dute bizimodu baten esentzia, aportatzen dute herria, aportatzen dute alaitasuna, umorea,... aportatzen dute

zalaparta eta haserreren bat ere tarteka... aportatzen dute, azken batean, familian sentitzea.

Askotan esaten diet, etxeko arropa zaharrek, etxean nagoen bezala joateko tentazioa izaten dudala batzuetan eta... badakit beraiek ere goxo aurkitzen direla elkartean. Bakoitza bere izakerarekin... ez nuke beste modu batera imajinatuko herriko jubiloteka!

Azken urtean galera inportantea izan dugu taldean. Baina "hutsa" nabaria bada ere, jubilotekara jende berria gonbidatzeaz ez naiz aspertuko. Badakidalako herria eta herriko kezkek, elkarrekin begiratuta, argiago ikusten direla. Besoak zabalik izango ditugu!

● Ainhoa Ansa Zugarramurdi

Oraingo haizeak

1- Haize erroten gaiaz hasiko bagiña etxean tokatzean ezta atsegiña giñarra ikutzean hartzen denez miña bertso hauetan doa nere ahalegiña ea zenbatek duten iritzi berdiña

2- Repsolen proiektua zertarako hauta gure hondamendia da beraien mauka hemengo politikak aupa eta aupa haize erroten gaiak kezkatuta nauka prozesutik nauka garbia zer dauka

3- Bizi modu bat eta kultura batera hau al da inguru bat suntsitzeko era aurki egingo digu goizetik gauera politikarekiko kofiantzak behera denek hartzen badute jokabide bera

4- Gure plazatik bistan jarri nahi ditzuzte dirua daukatenek nahiz horrela uste hemen ez gaude salgai hiru xoxen truke argia egiteko helburua dute baina guri itzala egingo liguke

5- Zergatik Leunetara ta Mandoegira elize erraldoiak jira eta bira ura besterik ez den lekua hori da baino zentralak eta presak ixten dira bada zer ikasia atzera begira

6- Hemen maiz ikusten da euria irixten erreketatik ura barra barra jeixten nolatan ari diren zaila da sinixten hidroeletrikoak ta presak ereisten eztagona asmatzen ta dagona ixten

7- Jentilen denboratik leku miretsia nahi da hormigoiz eta burniz irentsia ondorengoek a ze ezin sinetsia hau al da utzi behar zaien herentzia jaso genuenetik ze diferentzia

8- Hauei berdintsu die trikua nahiz hartza bertako ondarea ta herriko martxa guretzat ondorio larriak dakartza akabo Burnin buru eta Garagartza Arano ez da nonbait Kontxako hondartza

9- Askotan harritzen nau politikoek molde berean egin al ditzuzte denak badakite bilatzen ezkongai onenak interesik badute segitzen dutenak etzun arrazoi faltik Andres Mitxelenak

10- Aranok maite ditu bere baserriak historia aurretik dauzkan hilerriak bertan jaiotakoak etorri berriak ez ditzagun pazkatu betiko txerriak eta zer diozue ondoko herriak

OSKAR GASCON

Zer da zuretzako Arano?

Aranon jaio nitzan guan dela 50 urte. Lehenengo urtiak Perutxo base-rin bizi izan nitzan, gero 8 bat urte nitunian gurasuak Biona itxia erosi zuten ta 33 urte arte bertan bizi izandu nitzan. Gaur egun Hernanin bizi naz.

Aranon esan nitun nire lehen hitzak, eta bertan eman nitun nire lehen pausuak. Geroztik nere bizitzaren parte izandu da, umetatik hasi eta heldua izan arte pasadizo bikaina izan da, ez nuke ezerregaitik aldatuko. Nire familia, lagunak, bertako jendia, gure hizkuntza, ohiturak, harrizko itxiak, baserrik, mendik, basuak ta gure parajiak.... juaten zen lekura juan, beti zurekin damazkizu, ez dira sekula ahaztutzen, hori betirako da. Norberaren iza-keraz aparte, Aranokua izatiak ta bertan ikasi ta bizitutakuak, nolabait, izakera berezi bat ematen dizu.

Goguan dut zenbat ordu pasatzen genitun plazan, pelotan, bizikletan, elkarrei seika o garai hartan genitun gure jokukin. Han aspertzian txabolak itten o txori-kabik harrapatzen, ta posible izan giñunian gure moto zaharrak hartu ta amigina bat istorio bai! Beti ginun zeoze iteko, ta teknologia beharrik ez ongi pasatzeko, ez giñun aspertzeko denboraik. Gure aspaldiko ohiturak ere ahaztu gabe: karnabaletan, zomorrak ikusteko poz hura, eta urtiak pasa ahala zomorro izateko gogo hura; festak alletzeko ilusiyua... beti bagiñun zeoze, oroitzapen onak besteik ez dauzkat.

Bestalde naturakin, eta batez ere, mendiakin lotura haundia euki dut beti, nere bizitzan hau oso beharrezkoa da. Azken urte hauetan mendi lasterketetan ibiltzen naz ta horri esker leku eta mendi dotore pilla bat ezagutu ditut, baina Aranoko menditan ibiltzen nazenian sentitzen duana izugarria da, ez do parekorik! A ze leku ta parajiak dauzkagun, basuak, errekek, garai bateko xenda ta bide zaharrak, gailurrak... ez do gehio eskatzerik.

Entrenatzeko denbora askoik ez dut izaten ta askotan eguna argitu baiño lehen, neguan batik bat, frontala jantzi ta Adarra ta Asketa aldian ibiltzeko ohitura daukat. Normalian lagunakin juaten naz. Tonto-



re ailetzian, urrutira argi batzuk ikusten dia. Korrika guazela pixkanaka bereizten da nola itxiatan argik pizten dijuazten, ta beti lagunai gauza bera saten diot "Aranon esnatu dittuk".

Aranon urtaro batekin gelditu behar banuke, udazkenakin geldituko nintzake, ikusgarria da gure mendik ta basuak hartzen duen koloria, zuhaitzetako hostuen azken eunak, hego haize zakar ta berezi hori. Lehen politta bada, garai hontan ze sanik ez.

Arano ze ttikia ta era berian ze haundia, espero dut urte askuan hola segitzia. Zaindu dezagun denan artian! Suertez gaur egun gazteria bado ta hori beharrezkoa da herri bat bizi dadin, nik argi daukat posible duan guzin hemen izango nazela ta pozik no ze nire seme albari txikitatik saiatu naz erakusten nire jatorria, gure istorio ta inguruak... Behar bada, egunen batian, Aranon biziko dia edo ez, baina baki nik bezalaxe maiteko dutela Arano.



Adei Cueto eta Nahia Larrea.



Aranoko **SOROTXO**

Zein da zure herriko txokoa? eta zergatik da berezia? galdera horiei erantzuteko erronka jarri die aurten *ARNASETIK* egitasmoak udalerrri euskaldunetako gazteei. Ez dute nolana ere erantzun behar, ordea, bideo bidez baizik. Izan ere, *Arnasetik* bideosormen lehiaketa da eta aurtengoa hirugarren aldia da.

UEMAK, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako ekimena da, eta gaur egungo gazteen komunikazio-hizkuntzara eta teknologia berrietara egokitutako lehiaketa da.

10-16 urte arteko gazteek parte hartu dezakete eta lehiaketaren helburua hizkuntza ohituren inguruan gogoeta eragitea da, batetik, eta bestetik, udalerrri euskaldunen eta euskararen arnaguneen garrantzia jendarteratzea.

Arano zein Goizueta udalerrri euskaldunak izanik, Andres Narbarte "Xal-to" eskolako ikasleek ere izan dute parte hartzeko aukera, eta aranoar gazteak baita animatu ere! **Adei Cuetok** eta **Nahia Larreak** bideo polita aurkeztu dute. LH 5-6. mailako ikasleak izanik haiei egokitutako gaia honakoa zen: "Txokorako bidea", norberaren herriko txoko berezi bat aukeratu eta hura erakustea zuten egin beharreko lana. Adeik eta Nahiak *SOROTXO* ingurua hautatu eta paraje hura erakutsi dute bien artean grabatutako bideoan.

Kategoria ezberdinetako sariak egonen dira. Sorotxok ez baluke saririk irabaziko ere, Aranoko txokoa ezagutaraztea bera ere bada nolabaiteko saria. Zorionak egindako lanagatik, bikote!

Honako QR kodean
duzue bideoa ikusgai:

